



**BORONDATEZKO GIZARTE-AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEEI
BURUZKO OTSAILAREN 13KO 13/2024 DEKRETUA BETEZ ERRENTA
BIHURTU BEHARREKO ZENBATEKOAK**

2025eko EKITALDIARI DAGOZKION ZENBATEKOAK

Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritzak eman du informazio hau, BASEi buruzko 13/2024 Dekretuan ezarritako baldintzen berri emateko.

1. Prestazioak BGAEetan eta lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planetan.

1. – Prestazioak estatutuetan edo erregelamenduetan ezarritakoaren arabera jasoko dira.
2. – Erretiroagatiko, heriotzagatiko, baliaezintasunagatiko edo lan-harremana amaitzea dakarren ezintasun iraunkorragatiko prestazioak biziarteko errenta gisa ordainduko dira, finantza-errenten aukerarekin, betiere gutxienez hamabost urteko iraupena badute, zurtasun-prestazioen kasuetan izan ezik.
3. – Salbuespen gisa, lehentasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planaren estatutuek edo araudiak aurreikusi ahal izango dute erretiroagatiko, heriotzagatiko, baliaezintasunagatiko edo lan-harremana iraungitzea dakarten ezintasun iraunkorragatiko prestazioak kapital gisa jaso ahal izango direla, honako kasu hauetan:
 - a) Lehentasuneko enplegurako gizarte-aurreikuspeneko planaren estatutuek edo erregelamenduak prestazioa osorik edo zati batean kapital gisa jasotzeko aukera ezarri ahal izango dute, eskubide ekonomikoak zenbateko jakin batera iristen ez direnean. Eskubide ekonomikoen zenbateko hori ezingo da izan Gizarte Segurantzaren sistemaren ardurapeko ezkontidea duen erretiroagatiko urteko gutxieneko prestazioa baino **bi aldiz eta erdi** handiagoa (**39.466€**).

Estatutuek edo erregelamenduak kopuru jakin bat edo zenbateko hori kalkulatzeko formula ezar dezakete gehieneko zenbateko gisa, betiere aurreko lerrokadan adierazitako zenbatekoaren muga errespetatzen bada.

Ondorio horietarako, eskubide ekonomikoen zenbatekoa zehazteko, ez da kontuan hartuko hurrengo letran aurreikusitako eskubide ekonomikoen zenbatekoaren % 20rainoko kapital-kobrantzaren ondorioz eskubide horietan gertatu den murrizketa.

- b) Lehentasuneko enplegurako gizarte-aurreikuspeneko planaren estatutuek edo erregelamenduak ezarri ahal izango dute eskubide ekonomikoen zenbatekoaren % 20ra arteko kapital gisa jasotzeko aukera. Gehienezko muga hori errespetatuz, estatutuek edo erregelamenduak kapital gisa jaso ahal izango den eskubide ekonomikoen gehieneko ehuneko zehatza ezar dezakete.

2. Prestazioak BGAEetan eta lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planetan. Aldi iragankorra.

13/2024 Dekretua indarrean sartzean, hau da, 2024ko apirilaren 2an, lehentasunezkoztat jotako BGAEek, salbuespen gisa, honako formula hauek onartu eta jaso ahal izango dituzte beren estatutu edo erregelamenduetan, eta egokitzapenaren unean bazkide diren bazkideentzat bakarrik:

a) Prestazioa, osorik edo zati batean, kapital gisa jasotzeko aukera, eskubide ekonomikoak Gizarte Segurantzaren sistemaren ardurapeko ezkontidea duen erretiroagatiko urteko gutxieneko prestazioa baino **hiru aldiz** handiagoak ez direnean, gertakizuna gertatzen den unean **(47.359,20€)**.

b) Metatutako eskubide ekonomikoek errenta bat sortzen dutenean, aurreko paragrafoan jasotako kopurua gainditzeagatik, kapital gisa jasotzeko aukera, eskubide horien zenbatekoaren % 25eraino gehienez.

Era berean, dekretu hau indarrean sartu eta lau urteko epean lehentasunezkoztat jotzen diren enpleguko BGAEek eta epe horretan lehentasunezkoztat eratzen diren BGAE berriek beren estatutu eta erregelamenduetan jaso ahal izango dituzte aurreko ataleko aukerak 13/2024 Dekretuan xedatutakora egokitzeko unean bazkide diren bazkideentzat.

3. Ekarpen definituko sistemaren aurreikuspen-planetan bazkide arruntei eta onuradunei nahitaez eman beharreko informazioa, gutxienez sei hilean behin.

Bazkidearen eskubide ekonomikoek **Gizarte Segurantzaren sistemaren ardurapeko ezkontidea duen erretiroagatiko urteko gutxieneko prestazioaren bikoitza gainditzin dutenean (31.572,80€)**, BGAEak, bazkide bakoitzari dagokionez modu nabarmen eta indibidualizatuan, erretiro-pentsioaren zenbatespen bat sartuko du, aipatutako eskubide ekonomiko hori hamabost urtez hileko pensio finantzario iraunkor bihurtzearen ondoriozkoa, interes-tasaren hipotesiak kontuan hartu gabe. Zenbatespen hori egiteko, informazioa igortzen den unean eskubide ekonomikoen zenbatekoa erabiliko da, eta kasu gisa erabiliko da erretiroa une horretan gertatzen dela.